



PP

Talde Politikoa Grupo Político
PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Soldadu plazari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Soldadu plazako etxabeetan arazo asko sortzen ari dira bizilagunekin. Lokal asko okupatuta daude, etxabeen parte handi batean ez dabil argiteria, eta, duela gutxi, lokal horietako batzuk legez kanpo okupatuta dauzkatenek hainbat sute eragin dituzte. Etxabe horiek leku osasungaitz eta ez-seguru bihurtu dira, eta horrek arrisku larrian jartzen ditu hala bizilagunak nola bertan bizi direnak. Ez dago sute-ahorik, eta ia ez dago aireztapenik, ezta argiztapenik ere.

Duela urte batzuk arte, ate batek mugatzen zuen Soldadu plazako etxabeetarako sarbidea. Udalak bizilagunei esan zenez, kendu egin zuten, konpontzeko. Ez dute inoiz berriz jarri.

Hori dela eta, hau da gure



PP

Talde Politikoa Grupo Político
PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio ate nagusi bat jar dezala Soldadu plazako etxabeetara sartzeko, saltokietakoak eta lokaletakoak ez diren eta bertan garatzen den jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonak sartzeko modurik izan ez daitezen.
2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Soldadu plazako mantentze-lanak hobetzeko.

Donostia, 2025eko martxoaren 21a

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularreko Udal Taldeko bozeramailea